

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HIRIGINTZA SAILA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

**Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean ostatu-erabilera tertziarioa (turismo erabilera-rako etxebizitzak eta etxebizitza partikularretako erabilera turistikorako logelak) arautzearekin lotuta egin nahi den egiturazko xedapen-aldaketa formulatzea**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko otsailaren 2an egindako ohiko bilkuran:

1. Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean ostatu-erabilera tertziarioa (turismo erabilera-rako etxebizitzak eta etxebizitza partikularretako erabilera turistikorako logelak) arautzearekin lotutako egiturazko xedapen-aldaketa prestatu eta idazteko eskatzea Gasteizko Udaleko Hirigintza Saileko Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuko teknikariei.

2. Xedapen-aldaketa hau prestatu, izapidetu eta onesteko prozeduran jarraitu beharreko herritarren partaidetza-programa onestea.

3. Aldaketa hori landu eta idaztea xede, bertan behera uztea Gasteizko udalerrian erabilera turistikorako etxebizitza eta etxebizitza partikularretako erabilera turistikorako logela sailkapena duten jardueren hirigintza arloko lizentzia-emateak eta erantzukizunpeko obra-aitorpen edo aurretiko komunikazioen izapidetzeak, behin betiko onetsi arte — edonola ere, gehienez bi urtez, erabaki hau ALHAOn argitaratzen denetik kontatuta—.

4. Erabaki hau ALHAOn eta lurraldean zabalkunderik handiena duen egunkarietako batean argitaratzea.

5. Erabaki honen berri ematea Hirigintza Saileko Eraikuntzen Zerbitzuari eta Ingurumenaren eta Osasun Publikoaren Saileko Ingurumen Plangintza eta Kudeaketa Zerbitzuari, hauek banan banan jakinaraz diezaieten lizentzia-ematea bertan behera geratu aurretik hirigintza lizentziak eskatu dituztenei eta une horretatik aurrera erantzukizunpeko aitorpen edo jarduera sailkatuaren aurretiko komunikazioa aurkezten dutenei.

6. Erabaki honen berri ematea Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko otsailaren 9an

*Alkate lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**